



**155/2013 EBAZPENA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, DEIALDIA EGITEN DA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE ESKOLAN ADMINISTRARI LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENEZ / ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO.**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian ezarritakoaren arabera, Ebazpen hau egiten da aldi baterako barne-sustapenez / zerbitzu-eginkizunetan lanpostu hau betetzeko:

**LANPOSTUA:** ADMINISTRARIA (Lanaldi zatitua)

**LANTOKIA:** Vitoria-Gasteizko ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA

**HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA:** 2. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data igarota.

**BETEKIZUNAK:** (Agiri bidez egiaztatu beharko da).

- 1.- Bigarren hizkuntza-eskakizuna (2HE), derrigortasun-data igarota.
- 2.- Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak eta Osakidetza Euskera-Planak ezartzen dituzten gainerako betebeharrekoak.
- 3.- Karrerako funtzionarioa, pertsonal estatutarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea, Osakidetza Erakunde Zentralari atxikia.
- 4.- Zerbitzu aktiboan izatea, eta lortu nahi den kategoria ez den beste batekoa izatea, nahi den kategoria horri dagokion titulazio-maila berekoa edo baxuagokoa.
- 5.- Eskuratu nahi den kategorian, izendapenik ez izatea karrerako funtzionario edo pertsonal estatutario finko eran, edo lan-kontratu finkorik ez edukitzea, izendapen edo kontratu horrekiko egoera administratiboa edozein dela ere.
- 6.- Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako Teknikari titulazioa, Idazkaritzako Goi Mailako Teknikari titulazioa edo horien balioakideak izatea.
- 7.- IT-txartel hauek izatea: Microsoft Word XP Aurreratua, Microsoft Power Point XP, Microsoft Excel XP Aurreratua eta Microsoft Acces XP Aurreratua.
- 8.- Kategoria bereko lanpostuan aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago eramatea, etenik gabe.

Aurreko betekizunak betetzen ez dituen langilerik aurkezten ez bada, zerbitzu-eginkizunetako sistemaren bidez beteko da, honako betebeharrak eskatuta:

- 1.- Bigarren hizkuntza-eskakizuna (2HE), derrigortasun-data igarota.
- 2.- Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak eta Osakidetza Euskera-Planak ezartzen dituzten gainerako betebeharrak.
- 3.- Administrazio kategoriatik pertsonal finkoa izatea Osakidetza zerbitzu-erakundeetan, edo karrerako pertsonal funtzionarioa edo estatutario finkoa Osasun Sistema Nazionaleko gainerakoetan.
- 4.- Zerbitzu aktiboan izan behar da, eta lanpostuak betetzeko eskaera ez da egin behar norberak plaza jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundeetan.

**RESOLUCION Nº 155/2013, DEL DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA, POR LA QUE SE CONVOCA, PARA SU PROVISIÓN MEDIANTE PROMOCIÓN INTERNA TEMPORAL / COMISIÓN DE SERVICIOS UN PUESTO DE ADMINISTRATIVO EN LA ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERÍA DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.**

De conformidad con lo establecido en el Acuerdo de 9 de mayo de 2011, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se procede a dictar la presente Resolución de convocatoria para la provisión, mediante promoción interna temporal / comisión de servicios de un puesto de:

**PUESTO:** ADMINISTRATIVO (Jornada Partida)

**LOCALIZACIÓN:** ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERÍA (VITORIA - GASTEIZ)


**PERFIL LINGÜÍSTICO:** PL2, con fecha de preceptividad vencida

**REQUISITOS:** (Se deberán acreditar documentalmente)

- 1.- Perfil lingüístico 2, con fecha de preceptividad vencida.
- 2.- Resto de requisitos del Decreto 186/2005, de 19 de julio, y del Plan de Euskera de Osakidetza.
- 3.- Ser funcionario de carrera, personal estatutario o laboral fijo, adscrito a la Organización Central de Osakidetza.
- 4.- Estar en servicio activo y pertenecer a otra categoría de igual o inferior nivel de titulación que aquella a la que se opta.
- 5.- No tener en la misma categoría a la que se opta nombramiento como funcionario de carrera o personal estatutario fijo, o contrato laboral fijo, cualquiera que sea la situación administrativa en la que se encuentre en relación con dicho nombramiento o contrato.
- 6.- Estar en posesión de la titulación de Tco. Superior Administración y Finanzas, Tco. Superior Secretariado o equivalente.
- 7.- Estar en posesión de las IT-Txartelak de Microsoft Word XP Avanzado, Microsoft Power Point XP, Microsoft Excel XP Avanzado y Microsoft Access XP Avanzado.
- 8.- Si está en promoción interna temporal en puesto de la misma categoría, llevar más de un año de forma ininterrumpida en esta situación.

En el caso de no presentarse personal que cumpla los requisitos anteriores, se cubrirá mediante el sistema de comisión de servicios, con los siguientes requisitos:

- 1.- Perfil lingüístico 2, con fecha de preceptividad vencida.
- 2.- Resto de requisitos del Decreto 186/2005, de 19 de julio, y del Plan de Euskera de Osakidetza.
- 3.- Ser personal fijo de la categoría de Administrativo de las organizaciones de servicios de Osakidetza o personal funcionario de carrera o estatutario fijo del resto del Sistema Nacional de Salud.
- 4.- Estar en servicio activo y efectuar la solicitud para la cobertura de puestos en organización de servicios distinta de aquella en la que se tenga plaza en propiedad o a la que se esté adscrito por reingreso provisional al servicio activo.



**MERITUEN BAREMOA:*****Aldi baterako Barne Sustapena:***

- EPEko Oposizio fasea (100 puntu gehienez)
- Esperientzia profesionala (gehienez, 60 puntu)
- Prestakuntza (gehienez, 20 puntu).

***Zerbitzu-eginkizunak:***

- Esperientzia profesionala, deitutako azken lekualdatze-lehiaketako oinarrien arabera.

**ESKABIDEAK AURKEZTEA**

Interesatuak Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzara (Alava k., 45) bidali beharko dute eskabidea, curriculum vitaearekin batera, **2013ko apirilaren 29tik maiatzaren 23era**.

**BALORAZIO BATZORDEA:**

Batzorde bat eratuko da izangaien merituak baloratzeko.

**HAUTAKETA PROZEDURA:**

Batzordeak interesatuak behar den garaian eta moduan aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du. Balorazioa eginda, dagokion izendapena formalizatzeko proposamena egingo da. Batzordeak bete gabe utzi ahal izango du plaza, izangaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

**EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK**

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa ezar dakiokete Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**BAREMO DE MÉRITOS:*****Promoción interna temporal:***

- Fase Oposición OPE (Máx. 100 puntos)
- Experiencia Profesional (Máx. 60 puntos)
- Formación (Máx. 20 puntos)

***Comisión de servicios:***

- Experiencia Profesional, en los términos del último concurso de traslados convocado.

**PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES**

Los interesados dirigirán su solicitud, acompañada de "curriculum vitae" a la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza (C/ Alava, 45), **desde el día 29 de abril al 23 de mayo de 2013**.

**COMISIÓN DE VALORACIÓN**

Se constituirá una Comisión para la valoración de los méritos de los aspirantes.

**PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN:**

La Comisión valorará la documentación presentada en tiempo y forma por los interesados. A la vista de la misma se elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. La comisión podrá declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

**RECURSOS CONTRA LA PRESENTE RESOLUCIÓN**

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

**Vitoria-Gasteizen, 2013ko apirilaren 16an / En Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2013**

  
**D. Jose Mª Armentia Macazaga** jauna  
**GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA / DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS**  
Jose María Armentia Macazaga  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

**ZENTRO GUZTIETAKO IRAGARKI-TAULETAN ARGITARATZEKO 2013KO APIRILAREN 26AN**  
PARA SU PUBLICACIÓN EN LOS TABLONES DE ANUNCIOS DE TODOS LOS CENTROS EL DÍA 26 DE ABRIL DE 2013